



Ongi etorri euskararen mundura

Harrera jardunaldiak

Urriaren 10 eta 11n, **Ongi etorri euskararen mundura. Harrera jardunaldiak** egingo ditugu Gasteizko Europa Jauregian, Euskalgintzaren Kontseiluak eta Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak elkarlanean antolatuta.

Euskararen normalizazio eta biziberritze prozesuaren egungo erronketako bat da euskal herritar berriak helburu hori erdiesteko aliatu egitea. Horretarako, ezinbestekoa da hizkuntza harrera egokia gauzatzea. Premia hori sumatuta lanean ari dira hainbat eragile eta instituzio. Nolanahi dela, sortzen ari diren gogoeta eta praktika horiek elkarrekin partekatu eta amankomunean bideratzea premiazkoa da hizkuntza harrera egokira ailegatzeko. Hain justu, orain arteko azterketa, hausnarketa eta indarrean jarritako praktikak elkarbanatzea dira jardunaldi hauen funtsa.

Gero eta gehiago dira euskal herritar berriak, beren jatorrizko bizilekuak utzi eta bizimodu hobe baten bila heldu direnak. Onura dakarte gure jendartera. Datorren hamarkadan milaka eta milaka gehiago etorriko direla aurreikusten da. Euskararen normalizazioan eta biziberritzean aurrera egin nahi bada ezinbestekoa da gertakari hori aintzat hartzea, eta ezinbestekoa da euskal herritar berri horiei hizkuntza harrera egokia egitea: euskarara iristeko eta euskaraz jabetzekoa bidea ematea. Are, euskararen komunitateko kide aktibo izateko aukera eskaintzea.

Premia horretatik abiatuta, arestian zirriborratutako bi dira jardunaldion xede nagusiak, biak ere estuki lotuak: batetik, hizkuntza harrerari buruzko ezagutza ekoiztea; bestetik, ezagutza hori harrera protokolo egokiak diseinatzeko giltza izan dadin bideratzea. Ondorioz, honakoak izango dira jardunaldilen ardatzak:

1. Euskal herritar berriek euskararekiko izan duten esperientziaren berri jasotzea, eurek esateko dutena aditzea. Izan ere, bizipen eta behar horiei erreparatu gabe nekez diseinatu ahal izango da hizkuntza harrerarako protokolo eta politika egokirik.
2. Martxan diren esperientzia egokietatik ikastea. Jada leku, erakunde eta elkarte batzuetan ari dira euskal herritar berriak euskarara ekartzeko lanketa sistematizatuak egiten. Emaitza onak ematen ari diren zenbait identifikatu eta haietatik ikasteko parada eman nahi da jardunaldietan.
3. Iraganeko esperientzietatik ikastea. Euskal Herria lehenago ere izan da harrera leku. Esaterako, 60. eta 70.eko hamarkadetan migrazio olde handia gertatu zen Espainiako Estatuko hainbat lurraldetatik Hego Euskal Herrira. Horietako hainbat, eta haien seme-alaba asko, azken hamarkadetan euskarak izan duen biziberritze prozesurako ezinbesteko elementu izan dira. Iraganeko esperientzia horien memoria ekartzea gaur egungoa egoki egin ahal izateko bidea da.
4. Adituen ekarpena. Soziolinguistikatik, antropologiatik, psikologia-sozialetik... hainbat diziplinatatik ikertu da migrazioaren eta hizkuntza minorizatuen berreskuratze prozesuen gurutzaketa. Ahots horiek jasotzea ezinbestekoa da harrera egokia planifikatzeko.

Jardunaldien helburua, esan bezala, gaiaren inguruan gogoeta egitea da, baina, horrez gain, hizkuntza harrera egokirako protokoloa eta politika publikoak diseinatzeko zumeak jartzea.

Urriaren 10a, osteguna

09:30-10:00 Harrera eta agurrak.

- Idurre Eskisabel Larrañaga – Euskalgintzaren Kontseiluko idazkari nagusia
- Aitor Aldasoro Iturbe – Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako sailburuordea

10:00-11:30 Migrazioaren kokapena. Nortzuk ditugu euskal herritar berriak?

- Arkaitz Fullaondo Elordui-Zapaterietxe – Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiko ikerlaria, EHUko irakaslea (Hego Euskal Herria)
- Eguzki Urteaga Olano – Soziologoa, EHUko irakaslea (Ipar Euskal Herria)

11:30-12:00 Atsedendia: Kafe-etena.

12:00-13:00 Euskarak ematen al du aterperik? Solasaldia.

- Laura Penagos Rodriguez – Kolonbian jaioa. 2008tik bizi da Euskal Herrian
- Celeste Agüero – Argentinan jaioa. 2018tik bizi da Euskal Herrian

13:00-14:00 Hizkuntza harrera egokirako zumeak jartzen.

- Onintza Olaizola Aristi – Euskaltzaleen Topagunea Hizkuntz aniztasun arloaren arduraduna
- Mari Jose Arrieta Sagarna – Bilboko Udaleko Euskarako zuzendaria
- Itziar Eizagirre Arrieta – Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza eskubideak eta Kultura demokratikoko teknikaria

14:00-15:00 Bazkaria.

15:00-16:30 Etorri zirelako gara. 50-70 hamarkadetako immigrazioa eta euskararen biziberritzeari egindako ekarpena.

- Xabier Aierdi Urraza – Soziologian doktore eta EHUko irakasle jubilatua
- Belen Uranga Arakistain – Soziolinguistika Klusterreko ikerlaria eta Bat Soziolinguistika Aldizkariaren koordinatzailea

Urriaren 11, ostirala

09:00-10:15 Urretxuko Harrera Eremua: harrera herri baterako orube parte hartzailea, eraikigarria, moldagarria, bizia eta bizigarria.

- Beñat Zamalloa Akizu – Urretxuko Udaleko Gazteria teknikaria

10:15-11:45 Hezkuntza harrera gune, euskara harrera gune.

- Ruben Sanchez Bakaikoa – Gasteizko Alde Zaharreko eta Anhitzakeko dinamizatzaile ohia
- Goian Elkartea – Gasteizko Alde Zaharreko proiektu hezitzailea
- Egoitz Urrutikoetxea Laskibar – Seaska
- Yasmine Khri – LABA kidea
- Arantxa Caminos – Lantxotegi Elkarteko langilea, Kabia Programan komunitate hezitzailea

11:45-12:15 Atsedendia: Kafe-etena.

12:15-13:00 Gure hitzak. Nola izan harrera herri euskalduna?

- Leire Amenabar Larrañaga – Gizarte psikologian doktoregaia EHU

13:00-14:00 Helduen euskalduntze-alfabetatzearen ardatzekotasuna.

- Euskaltegi sareetako ordezkariak

14:00 Amaiera.